

**ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA**

ikastetxea:	IKASBIDEA IKASTOLA IPI	kodea:	010012
etapa:	DBH	zikloa/maila:	DBH 4
arloan/irakasgaia:	PLASTIKA ETA IKUS HEZKUNTZA - MARRAZKETA TEKNIKOA		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak	BERARIAZKO GAITASUNAK 1. Hizkuntza artistikoak adierazteko eta komunikatzeko baliabideak direla ulertzea, haiek norberaren arte ekoizpenetan erabiltzea, eta hizkuntza horiek obra artistiko eta kulturaletan identifikatzea. 2. Arte produktuak era pertsonal eta arrazoituan sortzea hainbat egoera eta bizi esparrutan, emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko. 3. Dagozkien denboran eta kulturaren interpretatzea arte adierazpenak eta ekoizpenak, eta horietan dauden funtzioak eta erabilerak aztertzea eta bereiztea, pertsonen bizitzan duten esanahia eta eragina ulertzeko. 4. Gogoetaren eta kritikaren bidez balioestea ondare artistiko eta kulturaleko elementuak, herrien nortasunaren eta kulturen oinarri diren aldetik, herrien arteko hartu emanaren, kulturen arteko elkarriketaren eta esperientzia partekatuen harian.		
irakasleak:	Maialen Egues Ergualde Leire Basarrate Etxebarria	ikasturtea:	2022-2023

Helburuak

1. Arte-hizkuntzen oinarrizko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ondo samar ezagutzea eta erabiltzen jakitea,
2. Gure kulturaren diseinuarekin, ikus-entzunezko euskarria duten hedabideekin, eta objektu nahiz formen adierazpen-sistema teknikoekin lotutako ekoizpen artistiko-estetikoko gune eta esparruen berri jakitea, eta horien kode espezifikoak ondo ulertzea, mota horretako arte-adierazpenak kritikoki aztertzeke eta espresio- eta komunikazio-baliabidez erabiltzeko.
3. Emozioak, sentimenduak, bizipenak, ideiak, eta natura nahiz kultura-inguruneke espazio, objektu eta elementuak adierazteko balio duten obra artistiko-estetikoko sortzea, eta horretan, komunikazio-gaitasunarekin, pentsamendu kritikoa eta autokonfiantza aurrera egitea.



4. Bilaketa, irudimena, baliabide bisualen sormenezko manipulazioa eta antzeko beste trebetasun batzuetan oinarrituta, eta ikuspuntu estetiko bati eutsiz, inguruko objektuak transformatzea, egoerak problematizatzea eta konponbide ugari proposatzea.
5. Bakarka nahiz modu kolektiboan proiektu artistiko baten gaineko plangintza egitea, eta, gero, prozesu horri buruz gogoeta egitea, lortu nahi den horretan intentzioak, fase bakoitzaren berrikusketak eta emaitzen ebaluazio kritikoak duten garrantziaz ohartzeko, eta hori guztia dela eta, talde-lana arduraz, tolerantziaz eta besteen iritziekiko errespetuz egin beharra aintzat hartzea.
6. Produktu estetikoek pertsonen eta gizarteen bizitzan izan dituzten eta dituzten funtzio eta erabilerak ulertzea, eta korrante estetikoaren, moden eta gustuen bilakaeraz eta oparotasunaz jabetzea, horiek guztiek gure balioetan eta munduari nahiz gizakiari buruzko ikuskeretan zer-nolako eragina duten ulertzeko.
7. Arte herri eta kulturen ondare eta identitatearen parte dela aintzat hartzea, eta, ondare oparo hori babestea eta sorberritzea helburu hartuta, eta elkartrukeak dakarren aberastasunaz jabetuta, kulturen arteko elkarriketak eta herrien konpartitzen dituzten esperientzia artistikoek egindako ekarpen ugarietako interesa izatea.
8. Norberarenaz eta gure inguruan nagusi direnez bestelako espresio bide estetikoak errespetatzea eta aintzat hartzea, eta horretan, prozesu erreflexibo eta kritikoak martxan jartzea, estereotipo eta konbentzionalismoak gainditu, proposamenak egitean erregistroak zabaldu, eta malgutasunez, solidaritatez, interesez eta tolerantziaz jokatzeko.

Edukiak	Ebaluazio-irizpideak	Ebaluazio adierazleak
I. ARTE-HIZKUNTZEN BALIABIDE ETA KONBENTZIOAK. Oinarrizko elementuak - Forma eta Geometria EGINDA		
<ul style="list-style-type: none"> ○ Estereotipoak gainditzea ikaslearen adierazpen grafikoetan, ingurune fisikoa behatu eta aztertu ostean eta beste pertsona batzuen proposamenak entzun ondoren. ○ Arte plastiko eta bisualek dituzten arazoak mundu fisikoa irudikatu edo adierazteko: historian unean-unean izan diren irudikatze-mailak eta horien erabilera-testuingurua. ○ Adierazpen- edo irudikatze-asmorik gabeko forma estetiko bisualak, forma geometrikoak eta horien adibideak artean eta eguneroko bizitzan. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Zenbait motatako mezuak sortzeko gai izatea, eta horretan, modu kontzientean erabiltzea bere interes espresibo eta komunikatiboekin bat datozen euskarri eta prozedura artistikoak. 2. Konposizio grafiko-plastiko pertsonal eta kolektiboak sortzea. 3. Puntuaren, lerroaren eta planoaren garrantzia identifikatu eta baloratzea, lan grafiko-plastikoak aztertuz. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Loturak egiten ditu arte-ekoizpenen komunikaziorako xedeen artean eta beren adierazpenerako. Prozesuak eta materialak probatzen ditu, teknologia baliatu gabe edo teknologia baliatuta, bere artelanak egokitasunez osatzeko. 2. Bilaketarako jarrera izatea, eta horretan, pertzepzioa, jakin-mina eta sentsibilitatea artikulatzea, erantzun tekniko eta formal egokiak emateko. 3. Proiektuaren komunikazio- edo adierazpen-xederako egokiak diren prozedurak eta materialak erabiltzen ditu.



<ul style="list-style-type: none">○ Konposizioaren kontzeptua. Konposizioaren elementuak: objektuak eta haien arteko harremanak, lerro birtualak, estatismoa eta dinamismoa.○ Objektuak eta espazioa geometria-trazaduren bidez adieraztea.○ Irudiak antolatzeko baliabideak: konposizioa eta oinarritzko elementuen arteko erlazioak (erritmoa, mugimendua, proportzioa, eskalak, etab.)○ Arteetako eta kultura bisualeko oinarritzko elementu formalek adierazpenerako eta komunikaziorako dituzten erabilerak eta aukerak: lerroa, kolorea, testurak, bolumena, argi-ilunak, etab.○ Esanahi-aldaketak: testuingurutik ateratzea eta besterenaz jabetzea.○ Kolorea eta argia erabiltzea bolumenak osatu eta formak sortzeko.○ Hiru dimentsioak simulatzea bi dimentsioko espazioetan.○ Forma baten zatien arteko erlazioen (eskalen, elkarrekiko loturen eta bestelako erlazioen) gaineko esperientziak.○ Formak eta irudiak deskribatzea, haiek norberarenak egin eta irudiak sortzeko.○ Denbora eta espazioa hainbat bitartekotan adierazteko soluzioak ikertzea eta aztertzea.	<p>4. Emozioak adieraztea elementu konfigurazio eta baliabide grafiko desberdinak erabiliz: lerroak, puntuak, koloreak, testurak, argi-ilunak...</p> <p>5. Orekaren, proportzioaren eta erritmoaren kontzeptuak identifikatu eta aplikatzea oinarritzko konposizioetan.</p> <p>6. Argi-kolorearen eta pigmentu-kolorearen propietateak identifikatu eta bereiztea, eta kolore primario eta sekundarioekin esperimintatzea.</p> <p>Irudien pertzepzio prozesuan esku hartzen duten elementuak eta faktoreak identifikatzea.</p> <p>7. Ilusio optikoak ahalbidetzen dituzten Gestalt-en ikusmen-legeak ezagutzea eta lege horiek aplikatzea norberaren artelanak egitean.</p> <p>8. Irudiaren ikonozitate maila desberdinekin marraztea.</p> <p>9. Irudi bat deskribatu, aztertu eta interpretatzea, haren alderdi denotatiboak eta konnotatiboak bereizita.</p> <p>10. Teknika grafiko-plastiko lehorrak, hezeak eta mistoak ezagutzea eta haien adierazpen aukerak aplikatzea. Tenpera, grafitozko lapitzak eta margoak. Collagea.</p>	<p>4. Prozeduretan egoki diren euskarriak, materialak eta tresnak identifikatzen eta konbinatzen ditu arte-produkzioetan.</p> <p>Hizkuntzen konbinazioak dakartzan aukerak ikertzen ditu bere artelanetan.</p> <p>5. Artelanetan eta kultura bisualeko produktuetan hizkuntza askotarikoen baliabideak erabiltzeak sortzen dituen eraginak aztertzen ditu.</p> <p>6. Modu kontzientean eta intentzios erabiltzen ditu baliabide eta teknika plastiko eta bisualak, mezu propioak osatzeko.</p> <p>7. Irudien pertzepzio-prozesuko elementuak eta faktoreak identifikatzen ditu (Geltast legeak, ilusio optikoak, etab.).</p> <p>8. Lan-proiektuak modu argian eta duen helburuari atxikita amaitzen ditu.</p> <p>9. Gaiak edo proiektuak aurkezteko, dokumentu multimedialak sortzen ditu, baliabide digitalak egoki erabilia.</p> <p>Gailu informatikoen erabilerak dakartzan azkartasuna eta eraginkortasuna aitortzen du.</p> <p>Badaki zer-nolako garrantzia eta protagonismoa duten euskarri teknologikoen egungo kultura-produkzioaren esparruetan.</p> <p>10. Bere asmoari egoki zaizkion euskarri eta prozedurak hautatzen ditu.</p>
--	--	--



<ul style="list-style-type: none">○ Jarrera ireki eta malgua izatea irudiak eta arte-adierazpenak aztertu eta balioestean.○ Leku eta garai askotako irudiak eta arte-objektuak ezagutzeko eta ulertzeko interesa izatea.○ Ikaslearen proposamen artistikoen eta ikasleak inguruan dituen irudien esanahiak aldatzeko aukerak ikertzeko jakin-mina.○ Formatua artelanean.○ Erritmoa konposizioan: errepikapena, alternantzia, simetria, etab.○ Kolorea: Kolorearen izaera. Kolorearen fisika. Argi-kolorea eta pigmentu-kolorea. Nahasketa gehi- garriak eta nahasketa kengarriak. Tonu-gamak eta konbinaketa harmonikoa. Kolorearen psikologia eta haren adierazpen kualitateak eta kualitate sinbolikoak.○ Arte plastikoetako eta diseinuko prozesuetan aplikatutako sormen-metodoak. Erronka. Ideiak atzematea eta babestea. Sormenerako estrategia eta tresnak: prestatzea, inkubazioa, argizatzea, egiaztatzea. Brainstorming-a.○ Prozedura eta teknika grafiko-plastikoak. Teknika lehorrak eta teknika hezeak. Teknika mistoak.	<p>11. Artelanetan eta berarengandik gertueneko inguruneetan geometriarekin lotutako prozedurak eta baliabideak identifikatzeko gai izatea eta bere arte-ekoizpenetan erabiltzea.</p> <ul style="list-style-type: none">● Lerro zuzenak marrazteko eskuairaren eta kartaboiaren erabilera zuzena ezagutzea.● Poligono erregularrak era zehatzean marraztea, erradioa ezagututa.● Poligono erregularrak era zehatzean marraztea, aldeak ezagututa.● Izar poligonoak era zehatzean marraztea.● Geometriak konposizioan ematen dituen aukerak aztertzea eta horietaz baliatuz, irudia sortzea.● Simetriaren kontzeptua aztertzea.● Konpasa era egokian erabiltzea eta ematen dizkigun aukerez baliatzea.● Zirkunferentziaren, zirkuluaren eta arkuaren kontzeptuak ezagutzea aietasunez.● Ukitzailen propietateak ezagutzea.● Elementu ukitzailak identifikatzea gure inguruan.	<p>11. Geometriak arteari eta errealitatearen irudikapenari ematen dizkion aukerak ulertzea eta arakatzeko, eta bere arte-ekoizpenetan geometria erabiltzea.</p> <p>Kulturek beren produkzioetan geometria nola erabili duten ikertzen du.</p> <p>Formak eratzeko arazoan irtenbide grafikoa topatzen du, geometria-erakuntza oinarritzeko erabilia.</p> <p>Bere lanetan, transformazio geometriko oinarritzeko –translazioak, simetriak, errotazioak, etab.– erabiltzen ditu, modu arrazoituan.</p> <p>Egoki erabiltzen ditu geometria-trazaduren berezko tresnak eta prozedurak.</p> <p>Lerroaren eta puntaren adierazpenerako gaitasunekin eta tonuari dagozkion aukerekin esperimendatzen du egindako konposizioetan.</p> <ul style="list-style-type: none">○ Irudia konfiguratu eta erabiltzen dituen elementuak identifikatu eta erabiltzen ditu: puntua, lerroa, planoak, norberaren eta besteren sorkuntza-lan grafiko-plastikoetan.○ Materialen berrerabiltzearen garrantzia eta jarduerak horrek dakartzan adierazpen-aukerak nabarmentzen ditu bere lanetan. <p>Loturak egiten ditu inguruan dituen arte-formen eta geometriaren artean.</p> <ul style="list-style-type: none">○ Poligono erregularrak egiten ditu, aldeak ezagututa.○ Poligono erregularrak egiten ditu, erradioa ezagututa.○ Izar poligonoak egiten ditu.○ Geometriaren baliabideak erabiltzen ditu espazioaren adierazpen edo irudikapenak dakartzan arazoei irtenbidea emateko.○ Eraldaketa geometriko oinarritzeko batzuk erabiltzen ditu bere artelanetan.
--	---	--



		<ul style="list-style-type: none">○ Modu egokian erabiltzen du konpasa.○ Ukitzailaz osatutako elementuak identifikatzen ditu.○ Kurben arteko loturak era egokian egiten ditu, ukitzailen kontzeptua aplikatuz.
II. SORMEN-PROZESU, -TEKNIKA ETA –FORMAK		
<ul style="list-style-type: none">○ Artelanak egin eta sortzeko prozesuaren faseak: plangintza, egitea eta emaitzak balioestea.○ Arte proposamenak lantzeko talde lana.○ Informazioa bilatu eta ikerketak egitea arte proiektuetan.○ Bi dimentsioko adierazpen grafiko eta plastikoko teknika oinarritzkoak. Adierazpen ezaugarriak eta aukerak.○ Bi dimentsiotan sortzeko teknika oinarritzkoak. Adierazpen ezaugarriak eta aukerak.○ Euskarriak, materialak eta tresnak. Ezaugarriak, berezitasunak eta erabilera moduak.○ Lan-proiektu jakinetarako egokienak diren materialak aztertzea.○ Teknika bakoitzerako behar diren tresnak erabiltzea.○ Baliabide informatikoak eta teknologia berriak ikertu eta erabiltzea irudiak bilatu eta sortzeko.○ Irudiak eta arte-proiektuak egiteko talde-plangintza eta-lanketa.	<ol style="list-style-type: none">1. Bere mezuak sortzean, elementu eta baliabide plastiko eta bisualen bidez espresatzeko eta komunikatzeko gai izatea.2. Komunikazio ekintza batean esku hartzen duten elementuak bereiztea eta aztertzea.3. Pentsamendu sortzaile eta originala lantzeko prozesuan aurrera egitea, eta horretan, eskura dituen baliabideak erabiltzea bere ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko.4. Arte plastikoetako eta diseinuko prozesuetan aplikatutako sormen-metodo grafiko-plastikoak ezagutu eta aplikatzea.5. Ikus hizkuntzak komunikatzeko duen balioa preziatzea.6. Talde lanaren garrantzia balioestea.7. Konposizio grafiko-plastiko pertsonal eta kolektiboak sortzea.	<ol style="list-style-type: none">1. Ahoz edo idatziz arrazoitzen du zergatik erabili diren baliabide plastiko eta bisual jakinak askotariko arte-adierazpenetan.2. Egiteko prozesuaren faseak (plangintza, egitea eta balioestea) ondo garatzen ditu.3. Oinarritzko emozioetako batzuk helarazten dituzten konposizioak egiten ditu (lasaitasuna, bortizkeria, askatasuna, poza, tristura...), kasu bakoitzean bitarteko grafiko desberdinak erabiliz (argi-iluna, lerroa, puntua, testura, kolorea...).4. Oinarritzko konposizio-eskema identifikatzen du, bai artelana, bai bere lanena, orekaren, proportzioaren eta eritmoaren kontzeptuak kontuan hartuta.5. Irudi grafikoaren ikonozitate maila desberdinak ulertzen ditu. Aldaketak egiten ditu elementu eta baliabideetan, bestelako esanahiak lortzeko.6. Taldekideen iritzia kontuan hartzen ditu, jarrera kritiko ekintzailea erakutsita.<ul style="list-style-type: none">○ Talde lanaren arauak errespetatzen ditu eta talde lanean eman zaion ardura onartzen du.7. Ekarpent pertsonalak egiten ditu adierazpen-prozesu jakinetan.<ul style="list-style-type: none">○ Irudimena du bere bizipenak eta egin dituen aurkikuntzak adierazteko.



		<ul style="list-style-type: none">○ Beste pertsona batzuen ideiak bilatzen eta berrerabiltzen ditu, bere sormen-premietara egokituta.○ Objektuak eta materialak erabiltzeko moduak ikertzen ditu.○ Ingurune fisikoko materialen, objektuen eta egoeren aukera plastikoak eta esanahiak arakatzen ditu.○ Materialak, tresnak, euskarriak eta bestelako elementuak baliatzen ditu adierazteko eta komunikatzeko.○ Ekimenez erabiltzen ditu materialak eta teknikak.○ Lanak egiteko, irudiak eta objektuak bilatzen eta berrerabiltzen ditu.
III. ERREFERENTE ESTETIKOAK ARTEAN ETA KULTURA BISUALEAN		
<ul style="list-style-type: none">○ Artearen, irudien eta beste adierazpen estetiko batzuen bidez ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazi eta komunikatzeko beharrezana, askotariko testuingurutan.○ Artearen eta irudien funtzioak eta erabilerak baldintzatzen dituzten faktore sozialak eta kulturalak.	<ol style="list-style-type: none">1. Ekoizpen estetiko-artistikoaren munduan nagusi diren esparru askotarikoak ezagutzea eta balioestea, esparru horiek aldakorrek direla aintzat hartzea, eta kontuan izatea haietan berebiziko eragina dutela unean uneko faktoreek (gizarte-aldaketek, garapen teknologikoak, faktore ekonomikoek...).2. Artearen munduan izandako proposamen estetiko ugariak identifikatzen eta elkarrekin lotzen jakitea, eta artea historian zehar eta hemen nahiz beste kultura batzuetan aldatuz doan prozesutzat interpretatzen jakitea.3. Ingurune hurbileko arte-ekoizpenak ezagutzea.4. Bere lanetan material eta tresnak manipulatzeke eta unean-unean sortzen zaizkion arazo estetikoak konponbide egokia aurkitzeko gai izatea.	<ol style="list-style-type: none">1. Historian baliatu izan diren eta gaur egun lan artistikoak egiteko baliatzen diren espazioen antolamenduari buruzko informazioa bilatzen du eta arazoizko modu batean antolatzen du informazio hori.2. Lan-eremu artistiko eta estetikoaren eta gizartearen eskakizunen arteko loturak identifikatzen ditu.<ul style="list-style-type: none">○ Zenbait arte-mugimendu identifikatzen ditu.○ Produkzio artistiko eta bisual jakinen faktore historikoak eta sozialak antzematen ditu.3. Adierazpen original eta irudimentsuak egiten ditu, eta gero eta lan hobek egiten saiatzen da.<ul style="list-style-type: none">○ Mezuak sortzen eta manipulatzeko, lan-prozesuen barnean.4. Modu kontzientean eta intentzios erabiltzen ditu baliabide plastikoak –formak, koloreak, egiturak, etab.–, mezu propioak osatzeko.<ul style="list-style-type: none">○ Era logikoan antolatzen eta betetzen ditu egiten dituen artelanetako etapak.



<p>DBH 4. MAILAKO MARRAZKETA TEKNIKOKO ZENBAIT BERARIAZKO HELBURU</p> <ul style="list-style-type: none">○ Baliabide informatikoak eta teknologia berriak ikertu eta erabiltzea irudiak bilatu eta sortzeko.	<p>5. Artelanak eta adierazpen bisualak aztertea, haien testuinguru historikoa aintzat hartuta.</p> <p>6. Irudi eta artelanetan zenbait esanahi identifikatzeko gai izatea, eta horretan, irudi horiek egin dituenaren intenzioa eta testuingurua kontuan hartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none">○ Onartu egiten ditu egiten dituen akatsak eta hobetzeko modua direla ulertzen du.○ Bere lan-prozesuaren gaineko hausnarketa ahozkoak eta idatziak egiten ditu.○ Adierazpen original eta irudimentsuak egiten ditu, eta gero eta lan hobeak egiten saiatzen da. <p>5. Inguruan dituen irudietan erabili diren baliabide teknikoak eta prozedurak bereizten ditu.</p> <ul style="list-style-type: none">○ Hizkuntza erabiliaren (komikiaren, argazkigintzaren, multimediarren, zinemaren eta gainerako hizkuntzen) ezaugarri propioak bereizten ditu.○ Gizakien pertzepzioa zabaltzeko moduak igartzen ditu ikus-entzunezko baliabideen erabileran.○ Egiten dituen lanetan, argiarekin, itzalekin, tonu-balioekin eta gainerako alderdiekin esperimentatzen du. <p>6. Inguruan dituen komunikabideetako mezu bisualen helburuak identifikatzen ditu, eta mezuari zentzua ematen dioten elementu formalak aztertzen ditu.</p> <ul style="list-style-type: none">○ Artelan askotarikoen ezaugarriak ezagutzen ditu, eta une eta ikuspegi estetiko zehatzen barnean interpretatzen ditu.○ Inguruneko eta Euskal Herriko jarduera artistiko eta kulturalak ezagutu eta horietan parte hartzeko interesa ageri du.○ Onartu egiten ditu bere gustuekin bat ez datozen adierazpenak.○ Taldean egindako lan artistikoetan parte hartzen du, eta errespetatu egiten ditu besteen ekarpenak. <ul style="list-style-type: none">○ Marrazketa teknikoko elementuak identifikatzen ditu adierazpen plastikoetan.
---	--	---



<ul style="list-style-type: none">○ Teknologia-euskarriak ikertzea, arakatzea eta haien ahalmen eta ezaugarrien gainean hausnartzea. ○ Geometria-trazaduren erabilera formak eraikitzeko. ○ Objektuak eta espazioa geometria-trazaduren eta sistema normalizatuen bidez irudikatu edo adieraztea. ○ Adierazpen- edo irudikatze-sistemen aplikazio-inguruneak identifikatu. ○ Hiru dimentsioko formak bi dimentsioko espazioetan irudikatzea, geometria trazadurak eta irudikatze-sistemak erabilia.	<p>Egoki erabiltzen ditu diseinurako zenbait programa informatiko, aukeratutako elementu geometrikoak irudikatzeko.</p> <p>Inguruan dituen irudietan erabili diren baliabide teknikoak eta prozedurak bereizten ditu.</p> <p>Loturak egiten ditu inguruan dituen arte-formen eta geometriaren artean.</p> <p>Geometria-trazadura oinarritzkoak egiten ditu, prozedura eta metodo arrazoituak erabilia.</p> <p>Eraldaketa geometriko oinarritzko batzuk erabiltzen ditu bere lanetan, modu arrazoituan.</p> <p>Egoki erabiltzen ditu geometria-trazaduren berezko tresnak eta prozedurak.</p> <p>Formak eratzeko arazoan irtenbide grafikoa topatzen du, geometria-eraikuntza oinarritzkoak erabilia.</p> <p>Geometriaren baliabideak erabiltzen ditu espazioaren adierazpen edo irudikapenak dakartzan arazoei irtenbidea emateko.</p> <p>Ulertzen du kodetutako adierazpen- edo irudikatze-sistemak eta beste baliabide geometriko batzuk erabiltzearen beharrizan soziala.</p> <p>Irudikatze-sistemen komunikazio-aukeren arteko konparazioak egiten ditu.</p> <p>Objektuak eta espazioak irudikatze arazoak ebazten ditu, formen posizioaren eta neurrien arteko harreman egokiak ezarrita.</p>	<ul style="list-style-type: none">○ Artean erabilitako zenbait baliabideren eta geometriaren arteko loturak ezartzen ditu.○ Inguruan dituen objektu eta adierazpenetan elementu geometrikoak bereizten ditu.○ Ikasgaiarenak berarenak diren lexikoa eta terminologia espezifikoak erabiltzen ditu, marrazketaprosesuak interpretatzeko eta transmititzeko.○ Badaki baliozkoa dela lexiko eta terminologia espezifikoak erabiltzea ikasgaiaren beraren edukiak ulertzeko eta barneratzeko.○ Trazaduretan marrazketa-tresna behar bezala erabiltzen du, eta garbi eta erabiltzeko modu egokian mantentzen saiatzen da.○ Lan-prozesuen soluzioak azaltzen ditu, terminologia egokia erabiliz.○ Adierazpenetan zenbait baliabide erabiltzen ditu, informatikoak nahiz informatikoak ez direnak.○ Kasu bakoitzean tresna egokia eta dagokion metodoa erabiltzen ditu.○ Azken emaitza, zehatza izateaz gain, garbia eta proposatutako helburuari egokitua izatea zaintzen du.○ Oinarritzko irudi geometrikoak egiten ditu, eta eraikuntzen metodoa eta arrazoibidea balioesten ditu.○ Adierazpen-sistemak formak erraz edo berehala neurtzeko aukera ematen duten sistema gisa balioesten ditu.○ Teknologia adierazpenerako ematen dituen aukerak aztertzen ditu.○ Ordenagailuz lagundutako marrazketa-programen abantailak ikertzen ditu.○ Erabili beharreko tresna informatikoaren aukeraketa arrazoitzen du, emaitza kontuan hartuta beharrezkoa jotzen duenean.
---	--	--



	<p>Komunikaziorako egokiena den irudikatze-sistema egokiena hautatzen du formak eta objektuak irudikatzeko.</p> <p>Egoki interpretatzen ditu posizioak, neurriak, ikuspegiak eta bestelako alderdiak, baldin eta horrelakoak ematen bazaizkio objektu eta forma askotarikoak irudikatzeko.</p>	
--	--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta ...]. **GUTXIENEZKO EDUKIAK**

DBH 4 PLASTIKA ETA IKUS-HEZKUNTZA	
1.EBALUAZIOA	Jarduerak
<p>I. ARTE-HIZKUNTZEN BALIABIDE ETA KONBENTZIOAK. Oinarrizko elementuak - Konposizioa</p> <ol style="list-style-type: none">1. Puntua, lerroa eta planoak.2. Kolorea eta argiluna konposizioan.3. Prozesuak: Bozetoak, proiektuak, aurkezpenak.4. Irudiak bere itxuraren arabera. (Irudikorrek, errealistak, abstraktuak, etab.)	<ol style="list-style-type: none">a. <i>Aurkezpena. Puntuaren funtzioa beteko duen elementua diseinatu. 1</i>b. <i>Puntuaren adierazkortasuna tamaina ezberdinetako puntuak eta zenbait kontzentrazio mailatan erabilia. 2</i>c. <i>Puntuz osatutako proiektua 4</i>d. <i>Lerroz osatutako proiektua. 3</i>e. <i>Planoz osatutako proiektua. 3</i>f. <i>Hundertwasser 3</i>
<p>II. IKUS-MINTZAIRA</p> <ol style="list-style-type: none">1. Konposizioa: Formatuak, egitura grafikoak, forma-fondoa, mugimendua, erritmoa, argia, kolorea, perspektiba, espazioa (lanen eta orrien banaketa)2. Egindura: Naturalak eta artifizialak.	<ol style="list-style-type: none">a. <i>Gaiaren aurkezpena 1</i>b. <i>Elementu berdinekin konposaketa ezberdinak diseinatu. (Matisse) 3</i>c. <i>Elementu ezberdinak erabiliz erritmo ezberdinak diseinatu (Siluetak). 3</i>d. <i>Obra ezagunen gainean (azetatoetan inprimaturik egon behar dute) errotuladoren marraztu zein den bakoitzaren konposaketaren eskema. 1</i>
2.EBALUAZIOA	
<p>III. ERREFERENTE ESTETIKOAK ARTEAN ETA KULTURA BISUALEAN</p> <ol style="list-style-type: none">1. Irudien funtzio eta forma desberdinak, testinguru- faktoreen arabera, Historian zehar.2. Irudiak interpretatzeko era ezberdinak. (Konnotagarria, denotagarria, ikus puntuak, enkoadraketa, mugimenduak, etab.)	<ol style="list-style-type: none">a. <i>Arte mugimenduen inguruko ibilbidea historian zehar. Talde txikietan ezaugarri nagusiak aurkeztu. Emakume artisten lana 8</i>b. <i>Artelan baten interpretazioa, taldeka eta formato handian. 10</i> <i>Soberan dauden saioetan 3. ebaluazioko gaian sartuko gara.</i>



3.EBALUAZIOA

IV. SORMEN-PROZESU, -TEKNIKA ETA -FORMAK

1. Sormen prozesuan parte hartzen duten elementuak ezagutu eta erabili.

Lanen faseak: Zirriborro eta gidoi kontzeptuak. Informazioa bilatzearen eta ikerketaren garrantzia.

2. Material, euskarri eta tresna grafiko eta plastikoak. Bi dimentsioko adierazpen grafiko eta plastikoko teknika oinarrizkoak. Adierazpen ezaugarriak eta aukerak.

3. Konposizioak, oinarrizko elementuek eta koloreak daukaten adierazpenerako balioa ulertu eta interpretatu. Kolorearen hizkuntza.

4. Bolumena

a. *Gaiaren aurkezpena. Zenbait artelan aztertu. 1*

a. *Teknika ezberdinekin esperimentatzen. 6*

b. *Artelan klasiko baten interpretazioa. 3*

- *Ikus-mintzaira gaia lantzeko, artelan bati "bizitza" emateko proiektua martxan jartzea aztertuko dugu eta, egokia ikusiz gero, taldearen ezaugarrien arabera, ikasleei planteatuko zaie. Proiektu horrek aurreko jarduerak ordezkatuko lituzke.*

a. *Siluetak. 3 (1. ebaluaketakoarekin elkartu dezakegu)*

b. *Collage-a.*

c. *Urtaroak. Elementu baten interpretazioa egin, urtaroak adierazteko kolorea eta konposizioaz baliatuz. 10*

a. *Kirigamia*

**DBH 4 PLASTIKA ETA IKUS HEZKUNTZA, MARRAZKETA TEKNIKOA**

1.EBALUAZIOA	Jarduerak
<p>I. GEOMETRIA LAUA 1</p> <p>1. MARRAZKETA TRESNAK. Geogebra eta LibreCAD programak eta konpasa eta eskuaira eta kartaboiaren erabilera.</p> <p>2. Oinarrizko elementuak eta egiturak planoan.</p> <p>3. Triangeluak, laukiak, poligono erregularrak, zirkunferentziak.</p> <p>4. Translazioa, biraketa, simetria.</p>	<p>a. Programen aurkezpena, adibideak ikusi, aztertu. 1</p> <p>b. Konpasa eta eskuaira eta kartaboiaren erabilerarako ariketa batzuk egin, zertarako eta nola erabiltzen diren jakiteko. 8</p> <p>c. Forma geometriko lauak Geogebren eraikitzeke ariketak egin. Bertan informazioa ezarri, zenbait propietate demostratzeko moduan argi adierazteko.</p> <p>d. Diseinu batzuen azterketa egin eta kopia. Zenbait diseinu berri egin.</p>
2.EBALUAZIOA	
<p>II. GEOMETRIA LAUA 2:</p> <p>1. Proporzioa, eskala.</p> <p>2. Zuzen eta kurba ukitzailak.</p> <p>3. Obaloo, oboidea eta espiralak.</p> <p>4. Kurba konikoak: Elipsea, parabola eta hiperbola.</p>	<p>a. Geogebra eta LibreCAD programak erabiliz, ariketak egin proporzioa eta eskala lantzeko.</p> <p>b. Emandako ariketen datuak ulertu eta marraztu. Diseinu propioak egin.</p> <p>c. Obaloo, oboidea eta espiralak marraztu emandako datuen arabera, Geogebra eta LibreCAD programak erabiliz.</p> <p>d. Kurba konikoak: Elipsea, parabola eta hiperbola marraztu emandako datuen arabera, Geogebra eta LibreCAD programak erabiliz.</p>
3.EBALUAZIOA	



III. ERREPRESENTAZIO SISTEMAK

1. Bista diedrikoak
2. Perspektiba isometrikoa
3. Perspektiba konikoa.

- a. Bista diedrikoak lantzeko ariketak, LibreCAD programa erabiliz.
- b. Perspektiba isometrikoa lantzeko ariketak, LibreCAD programa erabiliz.
- c. Perspektiba konikoa lantzeko ariketak, LibreCAD programa erabiliz.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna ... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGIA

- Irakaslearengan dago ariketa bakoitza planteatzea. Irudi bidez ikasleekin edukiak ikusi eta aztertu egiten ditugu.
- Batzuetan filmak edo eta film zatiak ikusiko ditugu, lan egiteko desioa eragiten dute eta. Eduki hauek mahai inguruak eta gogoetak eragiteko ere erabiltzen dira.
- Irakaslearen gidaritza eta suspertze jarraitua ere beharrezkoak izango dira.
- Batzuetan banakako lana egingo dute. Besteetan lan talde txikiak (3/4 lagun) eratuko dira. Talde osoan lan egingo duguna ahozko dinamikak izango dira batez ere. Unean uneko balioak indartuko dira, beraz: autonomia, kooperazioa, errespetua, delegatzen jakitearen balioa.
- Ikaste prozesuaren fase guztietan zenbait puntu baloratuko dira:
 - Ereduak aztertzen ditugunean (diapositibak, filmak,...) aipamen kritikoak egitea.
 - Informazioa bilatzea, interpretatzea eta egokitzea.
 - Grafikoki, hitzez edota testuen bidezko lanak burura eramaten jakitea.
 - Hausnarketa egitea, baloratzea eta ekarpenak egitea.
 - Originaltasunez eta sormenez lan egitea.
 - Estereotipoak eta norberaren mugak gaindituz adierazpena lantzea.
- Sorkuntza prozesuan oinarritutako lanak ere eskatuko zaizkie:
 - Ideiak bilatzea.
 - Zirriborroak egitea.
 - Ideiak garatzea.
 - Ekarpenak egitea.
 - Lanei amaiera egoki bat ematen ikastea.
 - Lanaren balorazio prozesuan autokritika gaitasuna eta zintzotasuna.
- Deskribatu diren pauso guzti horietan ikasleek ondoko modu hauetara egingo dute lan:
 - **Banaka:** Kolorearen teoriaren barneratzerako orduan, pinturaren esperimentazio oinarritzkoetan; Marrazketa teknikoaren barneratzeko fitxetan; informazio bilketan; materialaren autonomian; teknika desberdinen ikerketetan.



- **Binaka edo talde txikia** (3/4 lagun): talde hauek aproposak dira lan kooperatiboa lantzeko. Hainbat praktiketarako oso aproposa da: lan tamaina handia delako, guztien artean inteligentzia mota ezberdin batzuk landu behar direlako.
- **Talde handia**: Erabakiak hartzeko, negoziatzeko edo proiektu konplexuak egiteko, mahai inguruak sortzeko, pertzepzio eta sentikortasun aberastasunaz ohartzeko, ezinbestekoak dira talde handiak.

*EUSKARAREN erabilera ere asko baloratuko da, bai ahozko erabilera zein erabilera idatziaren maila, komunikatzeko gaitasuna gara dezaten. MARRAZKETA TEKNIKOAN Geo-Gebra eta LibreCad programak erabiltzen jarraituko dugu.

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

ZK 1. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.	ZK 2. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.	ZK 3. Elkarbizitzarako konpetentzia	ZK 4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.	ZK 5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia
--	--	--	---	---

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

EBALUAIO TRESNAK

Plastika eta Ikus Hezkuntza irakasgaia fase desberdinetan banatzen da eta fase bakoitzean ebaluazio jarraipen jakin bat burutuko du irakasleak, zenbait zeharkako konpetentzia ere ebaluatzen.

Ariketaren barneratze fasea:

-Irakasleak, hitzez, irudi bidez eta ikus-entzunezko baliabideen bidez ariketa baten edukiak aurkeztuko dizkie ikasleei. Une horietan ideien elkar trukaketak sustatuko dira eta ikasleen partaidetza, ekarpenak, gogoetak eta komunikaziorako gaitasunak baloratu eta kalifikatuko dira. **(ZK 1, ZK 2)**

Ariketaren antolaketa:

- Materialari dagokionez:

-Ikasle bakoitzak, bere gain dagoen materialaren ardura izango du. Irakasleak jarraipena egingo du. **(ZK 3)**

-Ikasleak, ariketaren harira interesgarritzat jotzen dituen material, informazio eta erreferentzien ekarpenak baloratu dira. **(ZK 1, ZK 2, ZK 4, ZK 5)**

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

1. Klasean egiten den lana ikasgaiaren funtsa da. Irakaslea, behin ariketa zertan datzan argi geratu denean, ikasle ikasle mugituko da etengabe, ordu guztian zehar, ikasle bakoitzak behar duen laguntza bermatzeko. Ikasleek beraiek beraien zalantza eta iradokizun beharrak eskatzea baloratu egingo da.

2. Lanak etengabe jasoak izango dira. Epe barruan lanak entregatuak izatea oinarritzko baldintza bat da. Lanak jaso eta kalifikatuko ditu irakasleak, ikaslearen gaitasunaren eta ahaleginaren jarraipena egin ostean. Ariketak, eredu artistiko eta estetiko zehatz batzuen erreferentzia izango dute eta berauen balorazioa parametro estetiko eta estilistiko batzuen barruan burutuko da.

3. Klasean egiten den lana barne emozio bereizgarriak agertarazteko eta norberaren munduaren ikuspegi propioaren adierazbiderako erabiltzeko ikaslearen gaitasuna baloratu egingo da.

4. Lanak egiteko prozedimenduak eta azken emaitzak jarraipena izango dute.



-Materiala banatzeak eta biltzeak, espazioa antolatzeak eta berregokitzeak, ikasleen inplikazioa exijitzen du. Ikasleen inplikazio horren jarraipena egingo du irakasleak. **(ZK 1, ZK 3, ZK 4, ZK 5)**

- Ikasleen talde-antolamenduari dagokionez:

Ariketaren izaeraren arabera eta ariketek planteatzen dituzten beharrian logistikoaren arabera ikasleak era desberdinetara antolatuko dira.

-Banaka.

-Taldea txikian (hirunaka, launaka).

-Taldea osoa.

Kasuak kasu, ikasleak dituen gaitasunak eta berauetan ikasleak egiten dituen aurrerapausoak jasoko ditu irakasleak. Besteak beste: Bakarrik lan egiteko gaitasuna, kooperazio gaitasuna, taldean lan egiteko gaitasuna eta ikuspegi desberdinekiko errespetua eta sentikortasuna. **(ZK 1, ZK 3, ZK 4, ZK 5)**

Ariketaren lanketa:

-Ikasleak, alderdi teknikoari dagokionez, sentikortasunari dagokionez, irizpide estetikoari eta gogoetari dagokionez egiten dituen aurrerapausoak irakasleak ebaluatu egingo ditu.

-Lana egin heinean ikasleak dituen zalantza gogoeta eta ekarpenak elkarbanatzea baloratu egingo da. **(ZK 1, ZK 2, ZK 4, ZK 5)**

-Ariketa bakoitza burura eramatea ezinbestekoa da.

Ariketa bakoitzaren lan praktikoaren fasea bukatutzat jotzen denean, irakasleak lanak jaso eta ebaluatu egingo ditu. **Hiruhilekoa gainditzeko, ezinbestekoa izango da hiruhileko horretan eskatzen diren ariketa guztiak era egokian eginda eta entregatuta izatea.**

Ariketa burutu ondoren:

-Lan praktikoa bukatu ondoren, lan prozesuan sortutako dudak, gogoetak, eta ekarpenak elkarbanatuko dira ikaskideen artean. Planteamenduari eta antolamenduari dagokionez hobekuntzak proposatzea baloratu egingo da. Parte hartze hori irakasleak baloratuko du. **(ZK 1, ZK 2, ZK 3, ZK 4, ZK 5)**

- Hizkuntzari dagokionez:

EUSKARA da irakasgaiaren hizkuntza eta beronen mailak garrantzia izango du eta exijitu egingo da. Bai eguneroko ahoko erabileran zein idatzizko lanetan. **(ZK 2)**

5. Edukien eta ariketen aurkezpena egiten denean, ikasleekin gogoeta espazioak irekiko dira. Erreferentzia diren arte lanen irudiak, edukiekin bat doazen ikus-entzunezko baliabideak eta hainbat baliabide erabiliko ditugu ikasgaiaren. Ikasleei parte hartzea sustatuko zaie eta horren jarraipena anotatu egingo da.

6. Ikasgaiak material erabiltze anitza inplikatu du. Materialaren banaketa eta jasotzea, berauek eragiten duten ondakin eta zikinkerien garbitzea eta gainerako zereginak lan banaketa metodo bat inplikatu dute. Ikasle bakoitzari dagokion zereginaren burutzea ezinbestekoa izango da. Era berean, ikasleek boluntarioki egiten dituzten ahaleginek kalifikazioaren balore positiboa izango dute.

7. Ariketa bakoitzaren esperientzia bukatu denean, bizi izandako bizipenak konpartituko dira gelakideen artean. Lanean aurkitutako zailtasunak, prozeduran sentitutako emozioak eta ikasitako edukiak elkarbanatuko dituzte. Ekarpene horien zintzotasuna, sakontasuna eta euskara kalitatea kalifikatua izango da.

KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK EBALUATZEKO ZENBAIT ASPEKTU:

Ikasketa zentroko azpiegitura eta materialaren erabilpen zuzena, gelakide guztion arteko harremana eta errespetua bermatua izatea, lanarekiko interesa, jakiteko gogoeta eta ardura, inplikazio emozionala, lan guztiak burura eramateko gai izatea, klasera garaiz heltzea, lanak garaiz entregatzea, banaka zein taldeko lanean positiboki aritzea, bestearen desberdintasun estetiko-artistiko-kultural-ideologikoaren errespetua eta interesa, ikasgaiak suposatzen dituen beharrian material eta logistikoaren dinamikan kooperazio baloreak adieraztea, txukuntasuna, ikasitakoaren erabilera, euskararen erabilera.

PLASTIKA eta IKUS HEZKUNTZA DBH 4

Ebaluazioan zehar egindako lana: %50

Zeharkako konpetentziak: %50

PLASTIKA eta IKUS HEZKUNTZA- MARRAZKETA TEKNIKOA DBH 4



- Bizikidetzari dagokionez:

Irakasgaiaren funtzionamendua behar bezalakoa izan dadin ikasketa zentroak zehazturik dituen arauak eta betebeharrak betetzea dagokigu denoi. Horiek bete ezean ikasketa zentroak definiturik dituen protokoloak bideratuko dira. **(ZK 2)**

Era berean, beste zenbait aspektu baloratuko dira:

- Ikasleak, ikasturtean zehar, landuko dituen ariketen aurrean dituen trebeziak aztertzekeo jarrera positiboa izatea eta trebezia horiek indarrean jartzeko gogoia izatea.
- Arte eta sormen espresioekiko sentsibilitatea garatzea.
- Lanak egiteko orduan euskarri, material eta tresna egokiak modu egokian erabiltzea.
- Gainontzeko ikaskideekiko eta beraien lanekiko errespetua beti mantentzeaz gain, haratago joanez, besteekiko eta besteen lanekiko ulerkortasunean eta sentiberatasunean sakontzea.
- Lanaren prozedura guztian zehaztapena, ordena eta garbitasuna erakustea.
- Klaseen ordutegiarekiko puntualtasuna.
- Lanak entregatzeko epea errespetatzea.
- DBH 4. mailako Plastika eta Ikus-Hezkuntza - Marrazketa Teknikoko arloan, hainbat tresna eta iturri informatiko erabiltzen ditu eta horretarako IKTeen hizkuntza erabiltzen du **(ZK 2)**. Era egokian erabiltzea ezinbestekoa izango da.

Ebaluazioan zehar egindako lana: %40

Zeharkako kompetentziak: %30

Proba praktikoa: %30

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema...].

Gainditu ez diren lanak hobetzeko, irakaslearen laguntza etengabea izango da.

Ikastaldea orokorrean beste lan bat egiten aritu arren, ikasleari gaingitu gabeko lanaren hobetze pautak emango zaizkio tarte batzuetan.

Materialari dagokionez, zein informaziori dagokionez irakaslearen laguntza ere izango du.

Hobekuntza fase horretan, ikasleak bere kabuz egin behar du lana eta ahalegina.

Gaingitu gabeko lanak teknika zehatz batekoak badira, unitate didaktiko konkretu batekoak, gerta liteke irakasleak ikasleari lan intentsitatea ariketa batean kontzentratzea gomendatzea.

BERRESKURATZE SISTEMA

Ikasleren batek arloko berriarazko edota zehar kompetentzietan maila egokia ez duela lortuko aurreikusten bada, (Elkarbizitzarako gaitasuna, autonomia lan egiteko, kooperazio gaitasuna, taldean lan egiteko gaitasuna eta ikuspegi desberdinekiko errespetua eta sentikortasuna. (ZK 1, ZK 3, ZK 4, ZK 5) jarraipen zuzena eta hurbila egingo zaio irakaslearen aldetik. Familiari / legezko tutoreari inplikazioa eskatuko zaio jarraipen horretan.



AZKEN EBALUAZIOA

Azterketa zehatza jarriko da. Denboraz jakinaraziko zaie ikasleei ariketak zertan oinarrituko diren. Zehaztutako egunean, ariketa multzoa emango zaio, gelan bertan egiteko edo, kasuak kasu, egiten hasteko.

Azterketarako beharrezko materiala ekarri duen ala ez, azterketan egindako ahalegina eta konpromiso maila ere baloratuko dira.

*EUSKARARI DAGOKION HOBEKUNTZA PLANA: AHOZKO EUSKARA ETA IDATZIA

Euskara maila hobetzeko asmoz, klasean burututako sormen lanei buruzko zenbait ahozko eta idatzizko aurkezpen egingo dituzte. Bertan, lanaren prozesuan inplikaturik egon diren kezka formal, teknikoak eta artistikoak eta berauetan inplikaturik egon diren sentimenduak eta emozioak azalduko dituzte.

ARAZO EGOERA BATETIK ABIATUTA UNITATE DIDAKTIKOAREN PROGRAMAZIOA

arloa:	PLASTIKA ETA IKUS-HEZKUNTZA
etapa:	DBH
maila:	4
saioak	18 saio.
Proposamenaren justifikazioa:	<p>Historian zehar, emakumearen papera etxe barruan geratu da eta gutxi dira Artean merezi duten tokia topatu duten emakume artistak.</p> <p>Kurtso bukaeran, erakusketa bat antolatuko da Ikasbidea ikastolan. Bertan, ikasleen zenbait lan izago ditugu ikusgai. Erreferentzia hartuko dituzten arte lanek emakumeek sortuak izan behar dute.</p>
ARAZO-EGOERA: A. testuingurua B. arazoa C. helburua	<p>A. Testuingurua: Orain arte egindakoa asko bada ere, berdintasuna guztiz errealitate bihurtzeko asko falta da.</p> <p>B. Arazoa: Ikastetxeetan ere, gure ekarpena egin nahi dugu ezkutuan bizi izan diren zenbait emakume artista ezagutzera emateko eta berdintasunerako bidea irekitzen laguntzeko. Gure ikasleek testuinguru guztietan desberdintasuna ikas dezaketen moduan, aukera izan behar dute berdintasuna eta berdintasunean ikasteko. Horren harira, zenbait prestakuntza lana egingo dugu, artista horien inguruko informazioa bilatzen, haien obra aztertzen, etab.</p> <p>C. Helburua: Gure ikas-komunitatea sentsibilizatzea, arlo askotan eta, zehazki Arte Historian, emakumeek sufritzen duten gutxiespenaz eta haren inguruko hausnarketa egitera bultzatzea. Zenbait emakume artista ezagutzera eman. Martxoaren 8 inguruko egunetan lan egiteaz gain, ikasturtean zehar ere aintzakotzat hartzen dugu iragarkiak, abestiak, filmeak... kritikoki aztertzea eta erantzun aktiboak sustatzea.</p>
Eginkizuna:	<p>Gaia: "Emakume artistak- Erakusketa Ikasbidean"</p> <p>Kurtso amaieran, erakusketa bat antolatuko da Ikasbidea ikastolan. Bertan, ikasleen zenbait lan izago ditugu ikusgai eta gaiarekin lotutako zenbait informazio ere eskura izango dugu. Ikasleei erakusketaren berri emateko kartela diseinatzea proposatuko zaie.</p>
OINARRIZKO KONPETENTZIAK: A. zeharkakoak B. diziplina-konpet.	<p>ZEHARKAKO KONPETENTZIAK</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. 2. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia. 3. Elkarbizitzarako konpetentzia. 4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia. 5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia. <p>DISZIPLINA-KONPETENTZIAK</p> <p>Arterako konpetentzia.</p>
helburu didaktikoak:	<p>Erreferente estetikoak artean eta kultura bisualean</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Irudien funtzio eta forma desberdinak, testinguru- faktoreen arabera, Historian zehar.



<p>edukiak:</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Irudiak interpretatzeko era ezberdinak. (Konnotagarria, denotagarria, ikus puntuak, enkoadraketa, mugimenduak, etab.) <p>Ekoizpen artistikoak egiterakoan norberaren ahalmenak gainditzeko prest egotea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Beste pertsona batzuen ekoizpen artistikoen analisiarekiko eta balorazioarekiko jarrera irekia eta malgua. ○ Tresnak, materialak eta espazioak erabiltzeko eta kontserbatzeko arauak eta jarraibideak betetzea. ○ Ongi egindako lanarekiko zaletasuna. ○ Emakume artistei eta haiek egindako lanei hurbilketa.
<p>JARDUEREN SEKUENTZIA:</p> <p>A. hasierako fasea B. garapen fasea C. aplikazio eta komunikazio fasea D. orokortzea eta transferentzia</p>	<p>Jardueren sekuentzia:</p> <p>A. Hasierako fasea:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. <u>Aurkezpen</u> bat jarriko zaie gaiari kokatzeko. 2. Martxoak 8 aldarrikapenarekin lotutako zenbait kartel <u>erakutsi</u> 3. Antolatuko den erakusketaren berri emango zaie. 4. Aurreko urteetan egindako zenbait lan erakutsi <p>B. Garapenaren fasea:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Bikoteak antolatu. 2. Artista aukeratu eta haren inguruko informazioa aurkezpen batean jaso. 3. Aukeratutakoaren obra bat aukeratu, aztertu, erabiliko den teknika erabaki, lana antolatu. <p>C. Aplikazio eta komunikazioaren fasea:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Aukeratutako artistaren obra baten interpretazioa/kopia egin. <p>D. Orokortzea eta transferentzia:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Artelanak sarrerako paneletan jarri.
<p>EBALUAZIOA:</p> <p>A. adierazleak B. tresnak</p>	<p>Ebaluazioa</p> <p>Talde lanaren kalitateari buruzko gogoeta.</p> <p><u>Inklusibitate ikuspegitik:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Lan taldearen partaide sentitu zara? ○ Zure jakinmin artistiko eta espresiboak asetuta geratu direla sentitzen duzu? ○ Taldeko gainerakoek lanak ikusi eta aintzat hartzeko gai izan zara? ○ Taldekideen sentikortasunarekiko edo irizpideekiko errespetua adierazi duzu? Maila berean tratatua izan zarela uste duzu? <p><u>Ikuspegi teknikitik:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Burututako proiektua aurrez zehaztutako epeen barruan burutu da? ○ Burututako proiektuak aurrez zehaztututa izan ditu beharizan guztiak? ○ Zailtasun teknikoak bideratzeko, alternatibak bilatzeko edo gainditzeko gai izan zarete? <p><u>Kalitate artistikoaren ikuspegitik:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Arte lanaren interpretazioaren kalitatea ona dela uste duzu? ○ Ikusleek izandako erreakzioa positiboa izan da? <p>Lanen edukiei buruzko gogoeta.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Hobekuntzarik iradokiko zenukete? <p>Ariketak sortu dituen zalantzak edo zailtasunak aipatuko dira eta etorkizunera begirako hobekuntza proposamenak aztertuko dira. Irakasleak idatziz jasota utziko du.</p> <p>EBALUAZIO TRESNAK</p> <p>Ariketaren barneratze fasea:</p>

-Irakasleak, hitzez, irudi bidez eta ikus-entzunezko baliabideen bidez ariketa baten edukiak aurkeztuko dizkie ikasleei. Une horietan ideien elkar trukaketak sustatuko dira eta ikasleen partaidetza, ekarpenak, gogoetak eta komunikaziorako gaitasunak baloratu eta kalifikatuko dira. **(ZK 1, ZK 2)**

Ariketaren antolaketa:

- Materialari dagokionez:

-Ikasle bakoitzak, bere gain dagoen materialaren ardura izango du. Irakasleak jarraipena egingo du. **(ZK 3)**

-Ikasleak, ariketaren harira interesgarritzat jotzen dituen material, informazio eta erreferentzien ekarpenak baloratuko dira. **(ZK 1, ZK 2, ZK 4, ZK 5)**

-Materiala banatzeak eta biltzeak, espazioa antolatzeak eta berregokitzeak, ikasleen inplikazioa exijitzen du. Ikasleen inplikazio horren jarraipena egingo du irakasleak. **(ZK 1, ZK 3, ZK 4, ZK 5)**

- Ikasleen talde-antolamenduari dagokionez:

Ariketaren izaeraren arabera eta ariketek planteatzen dituzten beharrian logistikoaren arabera ikasleak era desberdinetara antolatuko dira.

-Banaka.

-Talde txikian (hirunaka, launaka).

-Talde osoa.

Kasuak kasu, ikasleak dituen gaitasunak eta berauetan ikasleak egiten dituen aurrerapausoak jasoko ditu irakasleak. Besteak beste: Bakarrik lan egiteko gaitasuna, kooperazio gaitasuna, taldean lan egiteko gaitasuna eta ikuspegi desberdinekiko errespetua eta sentikortasuna. **(ZK 1, ZK 3, ZK 4, ZK 5)**

Ariketaren lanketa:

-Ikasleak, alderdi teknikoari dagokionez, sentikortasunari dagokionez, irizpide estetikoari eta gogoetari dagokionez egiten dituen aurrerapausoak irakasleak ebaluatu egingo ditu.

-Lana egin heinean ikasleak dituen zalantza gogoeta eta ekarpenak elkarbanatzea baloratu egingo da. **(ZK 1, ZK 2, ZK 4, ZK 5)**

-Ariketa bakoitza burura eramatea ezinbestekoa da.

Ariketa bakoitzaren lan praktikoaren fasea bukatutzat jotzen denean, irakasleak lanak jaso eta ebaluatu egingo ditu.

Ariketa burutu ondoren:

-Lan praktikoa bukatu ondoren, lan prozesuan sortutako dudak, gogoetak, eta ekarpenak elkarbanatuko dira ikaskideen artean. Planteamenduari eta antolamenduari dagokionez hobekuntzak proposatzea baloratu egingo da. Parte hartze hori irakasleak baloratuko du. **(ZK 1, ZK 2, ZK 3, ZK 4, ZK 5)**

- Hizkuntzari dagokionez:

EUSKARA da irakasgaiaren hizkuntza eta beronen mailak garrantzia izango du eta exijitu egingo da. Bai eguneroko ahozko erabileran zein idatzizko lanetan. **(ZK 2)**

- Bizikidetzari dagokionez:

Irakasgaiaren funtzionamendua behar bezalakoa izan dadin ikasketa zentroak zehazturik dituen arauak eta betebeharrak betetzea dagokigu denoi. Horiek bete ezean ikasketa zentroak definiturik dituen protokoloak bideratuko dira. **(ZK 2)**

Era berean, beste zenbait aspektu baloratuko dira:

- Ikasleak, ikasturtean zehar, landuko dituen ariketen aurrean dituen trebeziak aztertzeo jarrera positiboa izatea eta trebezia horiek indarrean jartzeko gogoia izatea.
- Arte eta sormen espresioekiko sentsibilitatea garatzea.
- Lanak egiteko orduan euskarri, material eta tresna egokiak modu egokian erabiltzea.
- Gainontzeko ikaskideekiko eta beraien lanekiko errespetua beti mantentzeaz gain, haratago joanez, besteekiko eta besteen lanekiko ulerkortasunean eta sentiberatasunean sakontzea.
- Lanaren prozedura guztian zehaztapena, ordena eta garbitasuna erakustea.
- Klaseen ordutegiarekiko puntualtasuna.



- o Lanak entregatzeko epea errespetatzea.

**ARAZO EGOERA BATETIK ABIATUTA UNITATE DIDAKTIKOAREN PROGRAMAZIOA**

arloa:	MARRAZKETA TEKNIKOA (PLASTIKA ETA IKUS-HEZKUNTZA)
etapa:	DBH
maila:	4
saioak	10
Proposamenaren justifikazioa:	Ikasleek kurtso honetara heldu arte marrazketa teknikoak ikasgaia ikasi dute erregela, konpasa eta eskuaira eta kartaboia erabiliz. Ingenieritza, arkitektura eta diseinu munduan, besteak beste, berriz, ordenagailua ezinbestekoa da.
ARAZO-EGOERA: A. testuingurua B. arazoa C. helburua	<p>A. Testuingurua</p> <p>Ikasbidea ikastolan, gela bakoitzaren alboan dauden letreroak (zertarako erabiltzen den gela azaltzen dutenak) zaharrak geratu dira. Berritzeko beharra dago.</p> <p>B. Arazoa</p> <p>Aurretik dauden letreroak ordezkatu beharko genituzke, estilo propioa erabiliz eta zenbait kasutan irudi batekin adieraziz.</p> <p>C. Helburua</p> <p>4. DBHko Marrazketa teknikoko ikasleek kontratatutak izan dira behar diren letrero berriak diseinatzeko helburuarekin.</p>
Eginkizuna:	LibreCAD aplikazioa erabiliz eskolako azalpen-kartelak diseinatzea eta dagozkien lekuetan kokatzea.
OINARRIZKO KONPETENTZIAK: A. zeharkakoak B. diziplina-konpet.	<p>ZEHARKAKO KONPETENTZIAK</p> <ol style="list-style-type: none">1. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.2. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.3. Elkarbizitzarako konpetentzia.4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia. <p>DISZIPLINA-KONPETENTZIAK</p> <ol style="list-style-type: none">1. Hizkuntza artistikoak adierazteko eta komunikatzeko baliabideak direla ulertzea, haiek norberaren arte ekoizpenetan erabiltzea, eta hizkuntza horiek obra artistiko eta kulturaletan identifikatzea.2. Dagozkien denboran eta kulturaren interpretatzea arte adierazpenak eta ekoizpenak, eta horietan dauden funtzioak eta erabilerak aztertzea eta bereiztea, pertsonen bizitzan duten esanahia eta eragina ulertzeko.3. Gogoetaren eta kritikaren bidez balioestea ondare artistiko eta kultureko elementuak, herrien nortasunaren eta kulturen oinarri diren aldetik, herrien arteko hartu emanaren, kulturen arteko elkarrizketaren eta esperientzia partekatuen harian.4. Teknologiarako konpetentzia



5. Matematikarako konpetentzia

helburu didaktikoak:

1. Arte-diseinu oinarrizko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ondo samar ezagutzea eta erabiltzen jakitea,
2. Emozioak, ideiak, eta natura nahiz kultura-inguruneko espazio, objektu eta elementuak adierazteko balio duten diseinu artistiko-estetikoak sortzea, eta horretan, komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoan eta autokonfidantzaz aurrera egitea.
3. Bakarka nahiz modu kolektiboan proiektu tekniko-artistiko baten gaineko plangintza egitea, eta, gero, prozesu horri buruz gogoeta egitea, lortu nahi den horretan intentzioak, fase bakoitzaren berrikusketak eta emaitzen ebaluazio kritikoak duten garrantziaz ohartzeko, eta hori guztia dela eta, talde-lana arduraz, tolerantziaz eta besteen iritziekiko errespetuz egin beharra aintzat hartzea.

edukiak:

1. Hizkien estiloen azterketa estrukturala.
2. Ikur, seinale eta logoen funtzioa.
3. LibreCAD programaren ezagutza.
4. Zuzen eta zirkunferentzia ukitzaileri buruzko ezagutza.
5. Irudiak interpretatzeko era ezberdinak. (Konnotagarria, denotagarria, ikus puntuak, enkoadraketa, mugimenduak, etab.)

JARDUEREN SEKUENTZIA:

- A. hasierako fasea
- B. garapen fasea
- C. aplikazio eta komunikazio fasea
- D. orokortzea eta transferentzia

Jardueren sekuentzia:

A. Hasierako fasea:

- Gaiaren aurkezpena.
- Behar diren letreroen zerrenda osatzea.
- Lanaren banaketa bikoteka.
- Oinarrizko ezagutzak: libreCAD aplikazioa eta Ukitzaileri buruzkoak.
- Sormenaren garrantzia.

B. Garapenaren fasea

- Talde bakoitzak diseinu batzuk prestatuko ditu geroago beste taldekoei aurkezteko.

C. Aplikazio eta komunikazio fasea

- Aukeraketa bat egingo da aurkeztutako estiloen artean. Talde bakoitza koordinatuko da beste taldeekin emaitzak estilo bateratua lortzeko, testuetan zein irudietan.

D. Orokortzea eta transferentzia

- Egindako lanak dagozkien lekuetan kokatuko ditugu..

EBALUAZIOA:**A. adierazleak****B. tresnak**

- A. EBALUAZIO ADIERAZLEAK
Ordenagailu bidezko marrazketaren oinarrizko ezagutzak ditu
Ukitzaileri buruzko oinarrizko ezagutzak ditu
Hasierako ziriborroak prestatu ditu
Koordinatu da emaitza final egokiak lortzeko.
Letrero berriak aurkeztu ditu, eskatutako epean.
- B. EBALUAZIO TRESNAK
Eskolako letrero berrietarako ziriborroak, eta emaitza finalak.